



**Arartekoaren 2023R-928-23 Ebazpena, 2023ko abuztuaren 2koa. Honen bidez, Azpeitiko Udalarari gomendatzen zaio behar diren ikuskapen, kontrol eta ingurumen-diziplina neurriak har ditzala ostalaritza-establezimendu bateko musika-taldeak eragindako gehiegizko zarata zuzentzeko.**

### Aurrekoak

1. Arartekoak Azpeitian bizi den XXXren beste kexa-idazki bat jaso du; horren bidez, berriro salatu du Azpeitiko Udalak ez duela esku-hartzerik egin XXX ostalaritza-establezimenduan (X) sortutako zarataren ondoriozko eragozpen larriak kontrolatu eta zuzentzeko.

Zehazki, Kexagileak adierazi du lokaleko musikaren bolumen altuak eragindako zarata-eragozpenak jasanezinak direla. Halaber, azaldu du bere etxebizitzan zarata handia entzuten dela aipatutako establezimendura sartzeko ateak etengabe zabalik egoteagatik, eta, gainera, ixteko ordua ez dela betetzen etengabe.

Jakinarazi du salaketa gehiago jarri dituela Azpeitiko Udalan baina artean ez duela erantzun egokirik jaso.

2. Arartekoak gai hau aurreko kexa-espeditente batean aztertu zuen (erreferentzia-zenbakia: 659/2019/QC). Une horretan egindako izapiddeen bidez, egiaztatu zen jarduera behar bezala erregularizatu zela. Horrez gain, espeditente horretan jasotako txostenen bitartez, ikusi zen lokalak gauzatzen zuen jardueramotarako isolamendu akustiko nahikoa zeukala.

Alabaina, gehiegizko zaratarengatik aurkeztutako salaketak direla-eta egindako lehen kontrolei esker, egiaztatu ahal izan zen musika-ekipoek ez zeukatela nahitaezko mugagailurik eta, beraz, baimendutakoa baino bolumen handiagoan jartzen zirela. Hori dela eta, udalak jardueraren sustatzaileari agindu zion mugagailua jartzeko lokaleko soinu-ekipo guztietan, baimendutako gehieneko bolumena beti errespetatze aldera.

Nolanahi ere, salaketa gehiago jarri zirenez, udalak jarraipen-kontrola egin zuen eta bertan ikusi zuen jardueraren sustatzaileak ez zituela betetzen jarritako udal-errekerimenduak, ez baitzuen jarritako muga errespetatzen; horrenbestez, udalak berriz ere eskatu zion ekipoa egokitu zezala. Halaber, musikaren bolumena mugatu ondoren, ikusi zen zenbait unetan deskonektatu zela ezarritako muga-sistema.

Udal-errekerimendu gehiago egin ostean, 2022an, Azpeitiko Udalak Arartekoari berretsi zion lokaleko musikaren bolumena modu eraginkorrean mugatu ondoren,





ordutik ez zela gehiegizko zaratarik antzeman. Nolanahi ere, udalak adierazi zuen arau-hauste gehiago egon ez zedin aztertuko zuela erregistro sonografikoa instalatzeko aukera, lokaleko soinu-ekipoetan kontrolak egiteko.

Aipatutako espedientean jasotako datuak aintzat hartuta, Arartekoak ulertu zuen konponduta zeudela salatutako zarata-eragozpenak eta, hortaz, 669/2019/QC espediente itxi zuen.

3. Hala ere, beste kexa-idazki bat jaso genuen erakunde honetan, zeinaren bidez berriz kexatu baitziren hizpide dugun establezimenduan sortutako zarata-eragozpenengatik. Horren harira, Arartekoak erabaki zuen beste espediente bat izapidetzea (erreferentzia-zenbakia: 623/2023/QC), eta Azpeitiko Udalarengana jo zuen jasotako azken salaketen ondorioz udalak egindako esku-hartzea ezagutze aldera.

2023ko ekainaren 9an, Azpeitiko Udalak Arartekoari erantzun zion, eta lokalean antzemandako gorabeherak berriz bideratzeko xedez egindako ingurumen-kontrolako neurriak jakinarazi zizkion.

Txostenean adierazi denez, egindako azken kontroletan berriro ikusi den ezarritako muga-sistema deskonektatu dutela eta, ondorioz, baimendutako gehieneko zarata-maila gainditzen dela.

Hori dela eta, udalak berriro eskatu du ezarritako muga betetzeko. Halaber, arauz kontrako jokabidea errepikatu dela ikusita, udalak erabaki du jardueraren arduradunari zehapen-espediente hastera, lokalaren arduradunak ustez arau-hauste larria egiteagatik, bat etorritik Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak xedatutakoarekin.

Erreklamazio hau ikusita, kexaren planteamendua eta administrazio horrek igorritako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak egokitzat jotzen du honako gogoeta hauek egitea:

### Gogoetak

1. Jarduera sailkatuak kontrolatze eta ingurumen-arloko legeriari egokitze aldera, herri-administrazioek esku hartzeko duten betebeharra ez da aukerakoa; izan ere, interes orokorra defendatzeko eta legeriatik eratortzen diren betebeharrak betetzen direla bermatzeko ordenamendu juridikoak ematen dizkion ahalmen publikoak gauzatzean datza.





2. Jarduera-lizentziek behin betiko lotura sortzen dute, interes publikoa babestea helburu duena, baimendutako jarduera gauzatzean sor daitezkeen gorabeheri aurre egiteko.

3. Jarduera sailkatuen funtzionamenduaren eraginpean dauden interes kontrajarriak bateratzea du helburu ingurumen-kontrolako araudiak. Horretarako, jarduera horiek abian jartzeko orduan, prozedura zehatz bati jarraitu behar zaio eta neurri eta muga batzuk ezarri behar dira, jarduerak kalterik eragin ez dezaten.

4. Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ezarritakoaren arabera, jarduera pribatuak, pertsonen kalteak eragin edo eragozpenak sor diezazkieketenak, administrazio publikoen esku-hartzearen mende daude. Hala, 49. artikuluan eta hurrengoetan, udalak esku hartzeko araubidea arautzen da, eta zehaztu dira jarduera sailkatuak gauzatzeko beharrezkoak diren lizentziak eta horiek onesteko prozedura.

Prozedura horren arabera, Udalak jarduera-lizentzia ematen du aurkeztutako proiektuarekin bat etorriz, eta ingurumen-kalteak murrizteko edo saihesteko beharrezkoak diren neurri babesle eta zuzentzaileak ezartzen ditu, hala nola kutsadura akustikoa.

Kasu horretan, udalari dagokio jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak egiaztatzea, zaintzea, ikuskatzea eta zigortzea. Eginkizun horiek betetzeko, dagokion foru-aldundiaren laguntza teknikoa eskatu ahal izango da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 98. artikulua prozedura bat ezarri du kasuan kasuko titulu gaitzaileetan ezarritako baldintzei dagozkien ez-betetzeak zuzentzeko, bai eta ezarritako ingurumeneko esku-hartze araubideetako baten pean dagoen jarduera baten funtzionamenduan akatsak zuzentzeko ere.

5. Lokalaren musika altuak eragindako eragozpenei dagokienez, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legeak nahiz hura garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 7/2019 Dekretuak ezartzen dute, zarata-arazoak saihesteko, lokal horiek isolamendu akustiko nahikoa izan behar dutela eta nahitaezko mugagailua izan behar dutela instalatuta soinu-elementu guztietan. Hori guztia, ezarritako arauko soinu-immisioen balioak une oro errespetatzen direla bermatze aldera. Gai hori Azpeitiko Udalak onetsitako Ostalaritza eta aisialdi-jarduerak dituzten establezimenduak jartzea arautzen duen Udal Ordenantzan ere dago jasota (2015eko martxoaren 18ko GAO).

Horri dagokionez, zehaztu behar da alde aurretik baimendutako soinu-ekipoetan potentzia-mugagailuak jartzea nahitaez bete beharreko neurria dela. Hori egin





ezean, aztergai dugun kasuan bezala, establezimenduak isolamendu akustiko nahikoa badu ere, musika-ekipoa baimendutako soinu-mailatik gora erabiltzeak kalte handiak eragingo lizkieke ukitutako bizilagunei.

Horretarako, salaketa gehiago jaso direnez, ezinbestekoa da neurketa eta egiaztatze egokiak egitea. Neurketa horiek jarduera bete-betean dagoen unean egin behar dira, batik bat eragozpenak gaez eragiten direlako. Bestela, zaila izango da bermatzea jardueraren funtzionamenduak ez dituela baimendutako zarata-mailak gainditzen.

Horrez gain, jarduerak jarduera-mota bakoitzerako ezarritako ordutegiak bete behar dituzte. Era berean, leihoak eta sarrerako ateak itxita egon behar dira une oro.

6. Kexa honetan salatutako egoerak zuzentzeko, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak udalei ematen dizkie instalazio-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak, baita, hala badagokio, funtzionamendu egokia edo hirugarrenei eragozpenak eta arriskuak saihesteko ezar litekeen beste edozein neurri zuzentzaile kontrolatzeko eta ikuskatzekoak ere.

Halaber, arau horretako 39. artikulua jaso duen legez, jardueraren sustatzaileak uko egiten badio exijitutako neurriak hartzeari, behar den dokumentazio teknikoa ez aurkezteagatik eragindako kalteak konpondu beharra betetzen ez badu, edo, funtsezko edozein datu zehaztugabe edo faltsu eman badu, edo hura falta bada, udalek galarazi dezakete ukitutako jardueran aritzea, gertaera horiek izan direla egiaztatzen den unetik, kalterik egin gabe sor litezkeen zigor- edo administrazio-erantzukizunei, baita erantzukizun zibilei ere.

Gainera, proportzionaltasun-printzipioaren arabera, jarduera baimenduz gero, ezarri ahal izango dituzte behar adina prebentziozko eta kautelazko neurri (bizilagunei eragozpenak eragiten dizkieten elementuak zigilatzea edo kentzea, besteak beste), eragindako kalteak lehenbailehen saihesteko.

10/2021 Legearen 105. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, tokiko administrazioen zehapen-ahala xedaezina da. Hortaz, egindako arau-hausteak ikusita, beharrezkoak diren zehapen-espeditenteak hasi behar dira; hori gorabehera, hizpide dugun lokalaren legezketasuna berrezartzeko eskatu ahalko da.

lido beretik, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeak 31. artikuluan biktimaren figura ezartzen du: salatutako gertaerek kalte egiten dioten pertsona, zehapen-prozeduran nolabaiteko interesa (banakakoa zein kolektiboa) daukana. Izan ere, legeria horretan biktimak identifikatu beharra ezartzen dio zehapen-izapidea egiten duen organoari, eta neurri





eta ekintza zehatzak arautzen dira biktimak zehapen-prozeduran bere interesak defendatu ahal izateko.

Neurri horiek garrantzitsuak dira hots-kutsadura kontrolatzeko alorrean, jarduketa arau-hausleak aisialdi-jarduera gauzatzen den inguruan bizi diren pertsonen osasun-kalte nabarmenak eragin ahal dizkielako. Kalte horiek pairatzen dituzten pertsonen eginkizun garrantzitsua dute administrazio-prozedura zehatzailean, ingurumen-araudiaren ustezko arau-hausteez eragindako kalteak berrezartzeko moduak proposatzeari dagokionez.

7. Azaldutako aurrekariak direla bide, ondorioztatzen dugu jardueraren sustatzaileak behin eta berriz urratu dituela ezarritako neurri zuzentzaileak, nahitaez bete beharrekoak izan arren.

Horren aurrean udalak egin duen esku-hartzeak, haiek betetzeko eskatzeak, alegia, ez du balio izan gabezia horiek zuzentzeko, ezta ukitutako bizilagunei eragindako kalteak eragozteko ere.

8. Toki-erakundeek ezin dute inoiz atzera egin ingurumenerako kaltegarriak diren egoeren aurrean, pertsonen edo ondasunen benetako kalteak eragin arte. Era berean, ezin dute espedientea luzatu, jarduerako arduradunek jarduera legezkontasunarekin bat etorraraziko duten itxaropenez.

Beharrezkoa da Udalak esku hartzea, arrisku-egoera amaitu dadin, eta beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea eta zuzeneko ardura dutenei neurri horiek hartzeko agintzea.

9. Bistakoa da lokal horiek gatazka larria sor dezaketela eta, are gehiago, sortzen dutela establezimendu-mota horren jarduerak ez badu araudi tekniko-juridiko egokirik, lokalen titularren interes partikularren —haien dibertimenduzko jardura gauzatzea— eta interes publiko orokorraren artean —establezimendu-mota horien inguruan bizi diren bizilagunen intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea, ezin baita haien lasaitasuna asaldatu lokal horiek sortutako eragozpenen ondorioz—.

10. Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziak adierazi du etxebizitzetako immisio akustiko gogaikarriek urratu ditzaketela Espainiako Konstituzioaren 15, 18.1 eta 18.2 artikuluek; hau da, bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (15. art.), norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea (18.1 art.) eta egoitzaren bortxaezintasunerako eskubidea (18.2 art.).

Zehazki, aipatu behar da Auzitegi Konstituzionalaren maiatzaren 24ko 119/2001 Epaia; horretan haxe jasotzen da: *"una exposición prolongada a unos*





*determinados niveles de ruido, que puedan objetivamente calificarse como evitables e insoportables, ha de merecer la protección dispensada al derecho fundamental a la intimidad personal y familiar, en el ámbito domiciliario, en la medida en que impidan o dificulten gravemente el libre desarrollo de la personalidad, siempre y cuando la lesión o menoscabo provenga de actos u omisiones de entes públicos a los que sea imputable la lesión producida”.*

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak, 2004ko azaroaren 16ko epaian (Gaia: Moreno Gomez vs. Espainia), pertsonak beren etxebizitza eta bizitza pribatua errespetatu daitezkeen duten eskubidea urratu zela jasotzen da —udal-administrazioak zaraten inguruko araudia behin eta berriro ez betetzea onartu zuen kasu batean—, eta, hala, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean jasotako 8. artikulua urratu zela.

11. Hori dela eta, Azpeitiko Udalak beharrezkoak diren babes-neurriak lehenbailehen hartu behar ditu aipatutako eskubideak urratzen ez direla bermatzeko. Antolamendu juridikoak prebenitzeko eta, hala badagokio, hirugarrengoei eragozpenak edo kalteak eragin diezazkieketen soinu-immisioak prebenitzeko eta, hala badagokio, konpontzeko esleitu dion ahal-eginkizuna ezinbestean erabili behar du organo publiko eskudunak.

12. Arartekoak badaki instalazioak zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunak betetzeak zailtasunak dakartzala eta, horren ildotik, uste du oreka aurkitu behar dela jarduera komertzial edo zerbitzu-jarduera arrakastatsuen eta auzotarrek dituzten eskubideen artean: atsedenerako eskubidea eta kalitatezko eta soinu nahasmendurik gabeko inguruneaz gozatzeko eskubidea.

13. Hala eta guztiz ere, orain arte hartutako zuzenketa- eta zehapen-neurriak gorabehera, Azpeitiko Udalak beharrezko baliabideak eta prozedurak zehaztu behar ditu egindako errekerimenduak behar bezala betetzen direla bermatze aldera. Hori guztia, jardueraren inguruan bizi diren auzokoen eskubideak benetan babesteko, eta desagerrarazteko ezohiko jarduera horrek haien etxebizitzetan eragiten dituen legez kontrako nahasmenduak.

Halaber, ezarritako muga indarrean dagoen bitartean, beharrezko neurriak hartu ahalko dira salatzaileen eskubideak bermatzeko xedearekin, hala nola bizilagunei eragozpenak eragiten dizkieten elementuak zigilatzea edo kentzea edo baimendutako ordutegia murriztea.

Kexa honi lotutako espedienteetan jasotako datuak eta igorritako informazioa ikusita, eta azaldutako gogoetekin bat etorritik, Arartekoak honako gomendioa hau egiten du





## GOMENDIOA

1. Arau-haustek gertatu direnez behin eta berriz, Azpeitiko Udalak erregistro sonografiko bat jarri behar du, lokalari eskatzen zaizkion neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.
2. Arartekoak Azpeitiko Udalari gomendatzen dio, udal-eskumen esparruan, eta dagozkion prozedura-bermeak errespetatuz, ingurumen-arloko beharrezko ikuskapen-, kontrol-, eta diziplina-neurriak gauzaten jarraitzea, dagozkion zehapenak ezarriz barne, ingurumen-legezketasuna benetan berrezartzen dela bermatzeko eta gehiegizko zaratek kalteturiko bizilagunei kalteak ekiditeko.

